



# ELIKAGAIAK EKOIZTEKO LANDA-LURRA: EZAUGARRIAK ETA GAITASUNA

EREDU ESTANDAR BATEN BILA

ELORRIO UDALERRIA

2018ko URRIA

Egileak:

Babesleak:



AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



# 0. AURKIBIDEA

1. SAR HITZA.....	5
2. LURRA ETA ELIKADURA.....	7
3. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	9
4. ELIKAGAIEN ESKARIA.....	13
4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA.....	15
4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA.....	17
4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA.....	21
5. LEHEN SEKTOREAREN DIAGNOSTIKOA.....	25
5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA.....	27
5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA.....	28
5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA.....	29
6. LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	33
6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA.....	35
6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA.....	39
6.3. BASOAREN EGITURA.....	41
6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.....	43
6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA.....	45
6.4.4. LURRAREN MALDA.....	45



7. ELIKAGAIEN EKOIZPENERAKO LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	47
7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	49
7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	51
7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	53
7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	54
8. HORNIKUNTZARAKO GAITASUNA ETA LURRAREN POTENZIALITATEA.....	57
8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA .....	59
8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA.....	61
8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN.....	64



# 1. SAR HITZA

Udalerrri baten etorkizuna irudikatzen denean Hiri Antolaketako Plan Orokorra (HAPO) aintzat hartzen du udalerrriari espero zaion bilakaera, izan bilakaera naturala edo joera indartsuagoen eragina.

Gauzak horrela arrazoizko epe baten barruan gauzatuko den plan orokorra zehazten du, zeinak zehazten duen zein jarduera egin behar diren bizileku mailan, jarduera ekonomikoari eskainitako eremuari dagokionez edo sistema orokorrei dagokionez.

Inguru naturala babes handikoa izan arren, “ez urbanizagarri” izan ohi da kalifikazio nagusia eta katalogatutako biotopo eta elementu berezietan harago, ez du ezartzen zer izan behar duen etorkizunean.

Azken bi hamarkadetako bilakaerari so, ordea, eremu “ez urbanizagarria” kategorian malguta dela ikusi dugu, hazkunde urbanistikoak behar duenean bere egiten duen eremua.

Horrela, hedapen urbanistikoak beretzat hartu ditu udalerrien inguruko eremu zabalak. Baliteke horiek guztiak beharrezkoak izatea, baliteke beste alternatiba batzuetarako aukera egotea, baina azpimarratzekoa da eztabaida horretan falta izan dela aldagai nagusi bat: zein lur gorde eta babestu behar dira, orain edo etorkizunean elikagaiak ekoizteko? Galdera horri erantzun gabe, galdera bera mahai gainean jarri gabe hartu dira hainbat erabaki, gehiengoz.

Landa lurra, ordea, mugatua da, are mugatuagoa baratzegintzarako eta goldatzeko lurra. Zentzu horretan, HAPOren moduko eragiketa batek biotopo eta gainerako natura berezitasunak betikotzeko ahalegina egiten duen moduan, landa-lurra betikotzeko ahalegina egin beharko luke, galerak ahalik eta gehien murriztuz eta dagoeneko eraikita dagoena berrerabiliz.

Esku artean duzunak ariketa horretan lagundu nahi luke. Txosten honen izaera esperimental da eta zuon guztion laguntzarekin hobetuz, Euskal Herriko HAPO nahiz lurraldea antolatzeko bestelako edozein eragiketa egitean lagungarri izan nahiko lukeen eredu bat eskaini nahi genuke.

Txosten honek udalerriko dimentsio sozioekonomiko nagusiak (eskaria eta sektorearen desmarta) eta lurraren ezaugarriak (berez dituen ezaugarriak eta gaur egun ematen zaion erabilera) biltzen ditu. Horren bitartez, HAPOaren prozesuan parte hartzen duen herritarrak bere esku izango ditu elikagaien kontsumo eta ekoizpenari lotutako balio nagusiak.

Esandakoak agerian jartzen du gure hirigintzaren gabezia handi bat: lurrari eta elikagaien ekoizpenari eskaintzen zaion arreta eskasa. Hori bera, ordea, erronka ilusionagarri bat bihurtu zaigu bizi garen garai honetan, udalerrri eta eskualdeak gai izango ote dira bere landa lurra ongi kudeatuz bere biztanleak hornitzeko? Ukaezina da elikagai osasuntsuen premiaz gain, zirkuitu laburrek, landa lurraren kudeaketak, elikagaien transformazioak, enplegu sorrerak... lehen mailako ondasuna dakartela horren alde egiten duten udalerrri eta eskualdeetan.

Balio beza lan honek eztabaida horretan herritarrak informatzeko eta planeamendu mailako erabakietan argibideak eskaintzeko. Edonola ere, esperientzia pilotua izanda, zuon guztion ekarpen beharrean dago.





## 2. LURRA ETA ELIKADURA

Esku artean duzuna ahalegin esperimental jakin baten emaitza da. Gaindegia eta Bizkaiko EHNEren artean Errigoiti, Elorrio, Karrantza eta Larrabetzuko udalerrien azterketa egin dugu.

Galdera nagusi bati erantzun nahi izan diogu: Zein da udalerrri bakoitzaren gaitasuna elikagaiak sortzeari dagokionez? Galdera horren erantzuna, ordea, norabide jakin batean marraztu nahi izan dugu: Udalerriaren egitasmo estrategikoetan lurrak komunitatearen zein pertsonen ongizaterako duen balioa azaleratzea.

Gure kezkak oinarri sendoa du. Hamarkada luzeak bizi izan ditugu zeinetan baserritarren lanaren fruitua gutxietsi egin dugu, gure hozkailuak urruneko jakiz bete diren eta lur eremu zabala artifizializatu den etxebizitzak zein azpiegitura berriak eraikitzeke. Horrek, halaber, ondorio nabarmenak izan ditu: baserritar gutxiago, baserriak galdu, bertako elikagaien kontsumoa amildu, landa lurren zaintza narrastu... Gure herriaren kulturak asko du lurretik (espazio kuttunak, kultur eta kirol jarduerak, elikagai paregabeak...) baina azken 50 urtetako ibilbideak eten egin du lotura hori. Lurrik eta baserritarrik gabeko Herria izateko bidea hartu dugu.

XXI. mendeak, ordea, argi gorriak piztu dizkigu, iraunkortasuna beharrezkoa zaigu gure Munduak iraun dezan, nekazaritza iraunkorra ere bai. Errebisatu beharrean gaude, beraz, gure uste eta egiteko erak. Baserritarrok alde horretatik badugu zer eskaini eta zer aldarrikatu euskal gizartea parametro berrietan jokatzen has dadin. Landa lurraren kontserbazioari eta honek elikagaiak ekoizteko duen balioari izaera estrategikoa aitortu behar diogu bailaraz bailara, ondasun ahigarria denez.

Badakigu, ordea, elikatzea fenomeno zabala dela, askotariko eragile eta prozesuak dituela bere baitan. Zinez, elikatzeke moduak lurraldea fisikoki eta sozioekonomikoki egituratzen du (norabide batean edo bestean, hautatzen den ereduaren arabera). Badakigu, halaber, bide horretan baserritarrak eta herritarrok topo egin beharko dugula, bai ekoizpenean, bai kontsumoan, baina baita herri eta eskualdetako planifikazio estrategikoan ere, hori izango da elikaduratik lurraldea iraunkortasunez baldintzatzeko bidea. Besteak beste, hirigintza planeamenduetan. Garatu dugun metodologiak bide horretan herritarrak jabetu eta landa lurraren ezagumendua garatzen laguntzea nahi genuke.

Asmo horrekin garatu dugu egitasmo hau. Honaino helduta, ordea, ziur gaude etorkizunean baserritar eta adituen laguntzarekin eredu osatu eta sendotzeko bide emankorra egingo dugula. Esku artean duzun honek lanerako proposamena izan nahi luke.









# Laburpen exekutiboa

Atal honetan txostenaren laburpena topatuko duzu. Bertan, azterketaren datu esanguratsuenak azaltzeaz gain, azterlanaren sintesia topatuko duzu.



Elorrioko herrian arreta jarriaz, azterlan honek ondorio ugari utzi dizkigu (xehetasunak ezagutzeko jo txostenera), zeinak elikadura estrategia iraunkor baten diseinuan baliagarrian izatea espero den. Laburrean, esan daiteke, Elorriok elikagaiak ekoitzi eta autohornikuntza maila handitzeko beharra eta aukera zabalak dituela:

1. Egun elikadurak Elorrioren eragiten duen mugimendu ekonomikoa aintzat hartuz, bertako autohornikuntzaren dimentsioa oso apala da (BPGren %0,5, enpleguaren %1,7, eta ehun ekonomikoaren %7). Beraz, autohornikuntza maila hobetzeko eremu zabala du aurrean. Esaterako, baratzegintzarako egokiak diren lurren %98a ez da helburu horretarako baliatzen eta frutagintzarako egokia den eremuaren %90a ere ez. Larreen kasuan 2/3 ez dira baliatzen
2. Helburu hori erabat bideragarria da, Elorriok duen landa-lur ondarea aintzat hartuz gero (3.379 hektarea "urbanizaezin" izendatuta daude. Proporzio honi egonkor eutsi dio azken hamarkadetan. Beste era batera esanda, udalerriko azaleraren %90,6a urbanizaezina da.
3. Basoek azalera handia hartzen badute ere (2.545 hektarea) gehiena Radiata pinuaren landaketak dira (2.057 ha.) eta Baso azaleraren %11,6a baso naturala da (295 ha). Pinuaren eragina eta bizi duen gaitza kontuan hartuz, aukera egokiak daude, beste landaketa batzuetara jotzeko (bertako espezieak) eta nahi izatera "basolarregintzara" bideratzeko, hots, zura eta abeltzantza uztartzekoa.
4. Funtzionaltasun maila handiko landa lurra du Elorriok, besteak beste, bide berriak zabaltzen ibili beharrik izan gabe erabilgarri baititu partzela gehienak. Iturburuaren eskuragarritasuna ez da horren eroso, baina hala ere, aipatzekoa da iturburu bat hurbil duten partzelen kopurua (%46,6). Lurren orientazioaz nabardura handiagoak egin behar dira, izan ere, lurren erdiak hegoaldeko orientazioa badu ere, azaleraren 3/4ak %20tik gorako malda du. Beraz, funtzionaltasun mailarik handieneko partzelak katalogatu eta babesteko lan garrantzitsua du Elorriok, baldin eta establezimendu berriak ezartzea nahi badu.
5. Baratzegintzarako lurren egokitasuna handia da (207,4ha. egoki edo oso egokiak, nahiz eta 4,5ha. bakarrik enplegatu egun), baina lur hauek batik bat herrigunearen inguruan kokatuta egoteak "Okm" paradigma inplementatzeko aukera ematen badu ere, artifizializazioaren aurrean oso mendeko bihurtzen du. Elorrioren ezaugarrietako bat da azken hamarkadetan eremu urbanoaren azalera (artifizializazioa) beste hainbat udalerritan bezainbeste ez handitu izana. Baratzegintzarako lurren kokapenak (herri gunearen inguruan) hurrengo urtetan irizpide horri eutsi beharra nabarmen jartzen du, eta haztekotan "barrurantz" hazi beharko luke eremu berriak artifizializatu beharrean.
6. Baratzegintzarako lurrekin gertatu bezala, egokitasun altuko azalera handia izateaz gain, frutagintzarako lurrak ere udalerriko nukleoaren inguruan kokatzen dira. Kasu honetan, ordea, eremu periurbano hori udalerrira osora gehiago zabaltzen da, baina, erabili gabe izateak etorkizunari begira aukera hau zaindu beharra adierazten du.
7. Udalerriko landa lurraren %55,6a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Orotara, 1.831 dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 248 hektarea. Erdigunear, iparraldean eta mendebaldean, kokatuak nagusiki. Lurzoru horien %54,9a 20 hektareatik gorako partzelek biltzen dituzte, hau da, azalera egokia dutenak



- honelako jarduerak bultzatzeko. Gainera, basolarregintza aintzat hartuz gero, are zabalagoa izan daiteke eremu hori eta etorkizuneko basogintza iraunkorarentzat indargarri gerta liteke.
8. Elikatzeko ohiturak aldatzen ari diren arren, herritarren kontsumo lehenetsunetan elikagai freskoa da nagusi. Gure luraren gaitasuna eta produktuak aintzat hartuz, joera horrekin bat egiteko aukera onak ditu Elorriok.
  9. Era berean, herritarrek gehien kontsumitzen dituzten elikagaien proportzio handi bat bertan ekoizteko aukera altua da.
  10. Halaber, biztanleria egonkor mantenduko denez, kontsumo joerak eta ekoizpena bateratzeko prozesua planifikatzeko aukerak egokiak dira (motibazioa, portaera, ekoizpena, merkaturatzea...).
  11. Elorrioko egungo herritar guztiak barazkiz hornitzeko nahikoak lirateke 55,2 hektarea. Hau da, barazkigintzarako egokiak diren lurren %26,6a horretara bideratuz Elorrioko egoiliarren barazki beharra asetu daiteke. Frutagintzarako egokiak diren lurren %16a nahikoa litzake elorriarren fruta beharra asetzeko. Abeltzaintzarako, berriz, %10,5a
  12. Egun barazkigintzara bideratutako lurrek soilik 794 bat herritarren urteko barazki beharra asetzeko ahalmena dute. Beraz, luraren desaprobatxamendua handia da: barazkigintzarako egokiak edo oso egokiak diren lurrek urtean 27.447 pertsonen elikadura beharra asetzeko ahalmena dute. Hau da, herritar egoiliarren autohornikuntza bermatzeaz gain, Elorrioko lurrek beste 20.140 pertsona elikatzeko potentzialtasuna izango lukete. Elorriok %301,6 handitzen du bere auto hornikuntzarako gaitasuna.
  13. Elorrioko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan baldintza egokiko 123 bat lanpostu sortuko lirateke, frutagintzan 34 eta abeltzaintzan 21. Egokiak diren lur guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 727 lanpostu sortzeko aukera legoke. Baratzegintzan bakarrik 300 lanpostutik gora sortzea posible litzake.

Gauzak horrela, esan daiteke, **hirigintza planeamenduaren erronketariko bat badela udalerriko lurra elikagaien ekoizpenerako izan daitezen behar diren identifikazio, katalogazio eta babes neurriak ezartzea**. Baina xede hori hartzeak, era berean beste erronka batzuk dakartza, hala nola, aztertzea nola babestu funtzionaltasun handieneko partzelak, batez ere udalerritik hurbilen daudenak, bai eta jarduera desberdinetarako egokienak direnak (malda apalak dituztelako, iturria eskura dutelako, irigarriak direlako...).

Edonola ere, esan beharrekoa da, gauzak dauden moduan egonda, **artifizializazio berririk ez eragitea helburu beharrezko eta lorgarria dela Elorriorentzat bere egoera, aukerak eta ibilbide historikoa kontuan hartuz**. Irizpide hauek planeamenduak bere eginez gero, etorkizunean bertan elikagaiak ekoitzi eta kontsumitzeko plan estrategiko baten diseinurako oinarriak jarrita leudeke.








# Elikagaien eskaria

Atal honetan elikagai kontsumoari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu udalerrri mailan: kontsumituriko elikagaien bolumena, gehien eta gutxien kontsumituriko elikagaiak, hauen zenbatekoa eta aurreikusi daitekeen biztanleria bolumena hemendik eta 2030 urtera.




## 4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA

### BIZTANLERIAREN BILAKAERA. ELORRIO, 1986/2017.



Iturria: EUSTAT eta INE.

### BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA. ELORRIO, 2017.




Iturria: EUSTAT eta INE.





### BIZTANLERIAREN PROSPEKTIBA. ELORRIO, 2018/2030.



## Egun 7.307 biztanle

ditu Elorriok (2017). Udalerrriak biztanleria galera konstantea bizi izan zuen 1986/2006 epealdian. 2006tik aurrera, ordea, biztanle kopuruan handitzen joan da.

2025 urtera arte biztanle kopuruak gora egiten jarraituko du. Hortik aurrera, biztanleria biziberritzeko gaitasun eza dela eta, biztanleriaren bilakaera negatiboa izango da.

Elorrioko indar endogenoei erreparatuz, hemendik eta 2030 urte bitartean udalerrriak biztanleria galtzeko joera izango luke: belaunaldi berriak ez lirateke biztanleria biziberritzeko gai izango.

2011az geroztiko migrazio patroiak bere horretan mantenduz gero, ordea, 2030 urtean Elorriok egungo biztanle kopuru beretsua izan dezake. 2025 urtearen bueltan inoizko biztanle kopuru handiena izatera iritsiko litzateke, eta ostean, biztanle kopuru galera txiki bat jasango luke.


Modu batean ala bestean, aurreikustekoa da etorkizunean udalerriko biztanle bolumena egungoaren antzekoa izatea.

Elorrioko biztanleriaren adin egiturak Bizkaiko egituraren oso antzekoa da: zahartze tasa esanguratsua da (%21,7) eta 15-29 urte bitartekoaren belaunaldia apala (%13,0).




## 4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA

ELIKAGAIEN KONTSUMO OROKORRA (kg urtean/per capita).  
EUSKAL A.E, 2017.




Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMOA OROKORRA (kg/urtean).  
ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 109 kg fruta fresko, 74 kg esne eta esnekietan, 58 kg barazki freskoetan eta beste 48 kg haragi kontsumitzen ditu.

Ogiak eta pastak (41 kg), arrainak (28,5 kg), patatek (28,5 kg), zerealak, gailetak eta opildegia (14,8 kg), eraldatutako barazki eta frutak (14,1 kg), olioak (12,6 kg) edo plater prestatuek (11 kg) ere presentzia nabarmena dute herritarren elikadura ohituretan. Elikadura ohiturak eraldatzen ari dira nabarmen, baina produktu freskoen nagusitasuna agerikoa da herritarren elikaduran.

Euskal A.E.ko *per capita*-ko kontsumoa udalerrri mailara ekarrita, Elorrion orotara urtean fruta freskoan 794.344 kg, esne eta esnekietan 540.572 kg, barazki freskoetan 422.125 kg eta 348.105 kg haragi kontsumitzen dira.


### ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMEN OROKORRA (kg). ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Kontsumo per capita (kg/urtean)	Kontsumoa orotara (mila kg/urtean)		
		ELORRIO	Durangaldea	Bizkaia
OROTARA	464,1	3.391,3	45.793	533.080
Fruta freskoa	108,7	794,3	10.726	124.865
Esnea eta esnekiak	74,0	540,6	7.299	84.974
Barazki freskoak	57,8	422,1	5.700	66.355
Haragia	47,6	348,1	4.701	54.720
Ogia eta pasta	41,0	299,4	4.042	47.058
Arraina	28,9	210,9	2.848	33.149
Patata	28,5	208,3	2.813	32.747
Zerealak, gailetak, opildegia	14,8	107,9	1.456	16.953
Eraldatutako barazki eta frutak	14,1	103,0	1.391	16.195
Olioak	12,6	91,9	1.241	14.449
Plater prestatuak	11,0	80,2	1.082	12.600
Arrautzak	9,6	69,9	943	10.981
Txokolatea eta ordezkioak	4,3	31,5	425	4.951
Eltzekariak	3,4	25,1	338	3.940
Arroza	3,0	21,6	291	3.388
Fruitu lehorrak	2,7	19,9	269	3.136
Olibak	2,3	16,7	225	2.619

Oharrak: estimazioa. Per capita kontsumoak Euskal A.E.ko 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuena).

Iturria: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa, EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.

## BARATZEGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ELORRIO, 2017.




Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Frutagintzari dagokionez, nabarmena da kanpo produktuekiko menpekotasuna, izan ere hainbat fruta ez dira ohikoak euskal landa eremuan. Halere, badira euskal lurraldean ekoizten diren kontsumo handiko frutak, sagarrak, madariak edota kiwiak, besteak beste.

Laranja, sagarrak, bananak, meloiak, mandarinak, sandiak, melokotoiak edota kiwien eskaria oso altua da egungo elikadura ohituretan.

## ABELTZAINZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.




Tomate fresko eta prozesatua, frutak kontserban, tipula, piper, IV gamako barazkiak, letxuga eta antzekoak, kalabazina edo azenarioen eskaria oso nabarmena da egungo elikadura ohituretan.

Baratzegintzari dagokionez, eta Euskal A.E.ko herritarren kontsumo ohiturei jarraituz, Elorrion orotara ia 90.000 kg tomate fresko, 84.000 kg pasatxo fruta kontserban, 54.300 kg tipula edota 42.300 kg piper kontsumitzen dira.

Tomate prozesatua (39.600 kg), IV gamako barazkiak (garbituta eta ontziratua kontsumorako prest), letxuga-eskarola-endibiak (32.200 kg), kalabazinak (29.000 kg) edota azenarioen (29.000 kg) eskaria handia da ere.

### FRUTAGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Abeltzaintzari dagokionez, azpimarratzekoa da esnea, esnekien eta arrautzen kontsumo bolumena, elikadura ohituretan oso arruntak diren produktuak direlako.

Euskal A.E.ko herritarren biztanleko kontsumoa Elorrion aplikatuz, urtean 94.845 kg oilasko, 63.717 kg txerri-haragi, 34.854 kg labeldun haragi eta 34.781 kg txahal urrixa kontsumitzen dira. Indioilarrak (15.856 kg) eta arkumeak (11.180 kg) presentzia apalagoa dute, momentuz, herritarren elikadura ohituretan.


Oilaskoa da haragien artean jaun eta jabe. Urrun da txerri-haragia, eta are gehiago, beste haragi moten kontsumoa. Esnearen kontsumoan ohiturak aldatzen ari dira, halere, Elorrion 517.920 bat litro kontsumitzen dira urtean.



### 4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (€ urtean/per capita).


EUSKAL A.E, 2017.



Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (mila €/urtean).

ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 350€ gastatzen ditu haragia erosten, eta beste 249€, arraina erosten. Kantitatean kontsumo handieneko produktuak ez badira ere, prezioagatik elikadura gastuan nabarmentzen diren produktuak dira.

Haragia eta arraina alde batera, urtean 164€ gastatzen ditu Euskal A.E.ko herritar batek fruta freskoan, 107€ barazki freskoetan edota 60€ esnea eta esnekietan. Eraldatutako barazki eta frutan beste 36€, patatak erosten 25€, arrautzetan 22€, edota eltzekarietan, 7€.

*Per capita*-ko kontsumo patroi horiek Elorrioko errealitatera ekarrita, urtean haragian 2,6 milioi €, fruta freskoan 1,8 milioi €, barazki freskoetan 1,2 milioi € eta esnea eta esnekietan 436.000€ gastatzen dituzte elorriarrek.



Elorrioko herritarrek urtean haragia erosten 2,6 milioi €, fruta freskoan 1,8 milioi €, barazki freskoetan 1,2 milioi € edota esnea eta esnekietan 436.000€ gastatzen dute, besteak beste.



#### ELIKAGAIEN GASTU BOLUMEN OROKORRA (€). ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Gastua per capita (€/urtean)	Gastua orotara (mila €/urtean)		
		ELORRIO	Durangaldea	Bizkaia
<b>OROTARA</b>	<b>1.343,3</b>	<b>9.815</b>	<b>132.538</b>	<b>1.423.137</b>
Haragia	350,4	2.560	34.568	402.415
Arraina	248,8	1.818	24.550	285.785
Fruta freskoa	164,0	1.199	16.185	188.418
Barazki freskoak	107,3	784	10.585	123.223
Ogia eta pasta	103,2	754	10.180	118.502
Zerealak, gailetak, opildegia	65,5	478	6.459	75.188
Esnea eta esnekiak	59,6	436	5.884	68.491
Plater prestatuak	49,5	362	4.886	56.879
Olioak	41,3	301	4.071	47.392
Eraldatutako barazki eta frutak	36,0	263	3.548	41.304
Txokolatea eta ordezkoak	31,7	232	3.131	36.445
Patata	25,1	183	2.477	28.830
Arrautzak	21,8	159	2.149	25.017
Fruitu lehorrak	20,8	152	2.053	23.903
Eltzekariak	7,2	52	705	8.213
Olibak	6,2	45	614	7.144
Arroza	5,0	37	493	5.743

Oharrak: estimazioa. Per capitako gastuak Euskal A.E.ko 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuena).

Iturria: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa, EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.

### BARATZEGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ELORRIO, 2017.




Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Frutagintza gastuaren ikuspuntutik kanpo produktuekiko menpekotasuna agerikoa da zenbait fruta moten gastu bolumenagatik (laranjak, bananak, mandarinak, meloiak, melokotoiak, sandiak, ananak...). Baina sagarretan, kiwietan, madarietan, marrubietan, gerezietan edota limoietan ere gastua garrantzitsua da.

Kanpo produkzioko zenbait frutek bereganatzen dute elikadura gastuaren proportzio garrantzitsu bat. Halere, sagarrek, kiwiek edo madariek gastu zati handia bat hartzen dute.

### ABELTZAINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.





Tomateek, IV gamako barazkiek, letxuga eta antzekoek, piperrek, tipulek, tomate prozesatua edota lekek barazkigintzako elikadura gastuaren bolumen garrantzitsua barnebiltzen dute.

Baratzegintzari dagokionez, Euskal A.E.ko kontsumo patroiei jarraituz, Elorrioko herritarrek tomate freskoan 156.000€, IV gamako barazkietan 88.000€, letxuga, eskarola edota endibietan 81.000€ eta beste horrenbeste piperretan gastatzen dute urtean orotara elikaduran.

Tipula, tomate prozesatua, lekek, zainzuri prozesatuak, txanpiñoi eta beste perretxikoak, frutak kontserban edota kalabazinak presentzia nabarmena dute ere herritarren elikadura gastuan.

### FRUTAGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ELORRIO, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Oilasko haragian, labeldun haragian, txerri haragian eta txahal urrixan, orotara, ia 1,6 milioi € gastatzen dute elorriarrek urtean. Gastua esanguratsua da arkumea eta indioilar haragian, hala nola esnean eta arrautzetan.

Abeltzaintzaren esparruan, elorriarrek Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera, oilasko haragia erosten urtean 416.000€ gastatzen dute. Horretaz gain, labeldun haragian beste 400.000€, txerri haragian 390.000€ eta txahal urrixan 356.000€ gastatzen dute.

Bestalde, esnea eskuratzeko gastuaren zenbatekoa 377.000€koa da, esnekietan 36.000€koa eta arrautzetan 159.000€koa, Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera udalerrri mailan estimatutako bolumenen arabera.










# Lehen sektorearen diagnostikoa

Atal honetan udalerriko lehen sektoreari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu: sektorearen negozio zifra, ehun ekonomikoa, sortzen duen enplegu bolumena, animalia azienda... ahal izan dugun guztietan informazioa dimentsio konparagarrietan eskaini dugu esandakoari neurria hartu ahal izateko.



## 5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA

### NEGOZIO-ZIFRA LEHEN SEKTOREAN (milioi €). ELORRIO.



Iturria: EUSTAT eta GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

**1,32 milioi €**


inguruko neozio-zifra  
sortzen du urtean  
Elorrioko lehen  
sektoreak.

Udalerriko balio erantsi osoaren %0,5a lehen sektoreak sortzen du (EUSTAT, 2015). Kopuru txikia da, Durangaldearen (%0,4) Bizkaiaren (%0,6) parekoa. Lehen sektoreak munduko balio erantsi osoaren %3,9a sortzen du, Nazio Batuen Erakundeko azken datuen arabera (2014).

Lehen sektoreak azken urteetan garrantzia galdu du udalerriko ondasun ekonomikoaren sorrerari dagokionez. 2008ko krisi ekonomikoaren ostean, ordea, udalerriko ekonomian presentzia berreskuratu du, eta hori sektoreko BPG zifra globaletan nabaritu da.



### LEHEN SEKTOREAREN BALIO ERANTSIA (BPGaren %). ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA.




Iturria: EUSTAT eta ILO.



## 5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA

### NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK. ELORRIO



### NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK (%). ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA.

	1996	2001	2006	2011	2016
ELORRIO	0,9	1,3	0,8	1,3	1,7
Durangaldea	1,0	1,0	0,7	0,8	0,9
Bizkaia	1,0	0,9	0,6	0,7	0,7
Mundua	40,9	38,5	34,1	29,9	-

Iturriak: EUSTAT eta International Labour Organization (ILO).

2006 eta 2016 bitartean lehen sektoreko enplegu kopuruak bikoiztu dira. Sektoreko kontratu kopuruak ere gorakada izan du epealdi berean.

Elorrioren 52 enplegu daude nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza jardueretan; hau da, enpleguaren %1,7a jarduera hauei lotuta dago (2016). Durangaldean (%0,9) eta Bizkaian (%0,7) proportzio hori txikiagoa da. Munduan, aldiz, enpleguaren %30a lehen sektoreari lotuta dago, arrantza barne.


Elorrioren 15 langile bakarrik daude nekazal erregimenean; sektorean lan egiten dutenen gehiengoa (%71,2) autonomo gisa dihardute. 2012 urteaz geroztik, udalerriko lehen sektorearen kontratazio bolumenak ageriko goraldia izan du. Nolanahi ere, aldi baterakotasun handiko kontratazioa nagusitzen da sektorean.

### NEKAZAL ERREGIMENENKO LANGILEAK, KONTRATAZIOA ETA LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Nekazal erregimenera afiliatutako langileak</b>										
ELORRIO	5	6	9	12	11	9	12	15	17	15
Durangaldea	97	117	114	100	77	73	83	91	101	103
Bizkaia	1.011	1.092	1.132	1.104	954	814	794	848	867	920
<b>Kontratazioa lehen sektorean</b>										
ELORRIO	25	20	31	14	19	30	30	20	32	41
Durangaldea	209	126	143	81	123	108	178	189	180	178
Bizkaia	2.681	2.108	2.064	1.991	1.921	2.049	2.498	2.948	2.657	2.445
<b>Langabezia erregistratua lehen sektorean</b>										
ELORRIO	1	1	1	2	3	5	5	2	1	2
Durangaldea	23	34	46	64	72	84	98	89	81	72
Bizkaia	484	611	852	1.352	1.445	1.468	1.547	1.510	1.489	1.381

Iturria: Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.


## 5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta  
BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK (%)  
ELORRIO

■ Basogintza eta baso ustiaketa

■ Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak

## BERE TESTUINGURUA, 2017



Iturria: EUSTAT.

Elorrion lehen sektoreko 30 establezimendu daude eta udalerriko ehun ekonomikoaren %7,0a osatzen dute. Proporzio hori dezente apalagoa da Durangaldean (%3,1) zein Bizkaian (%2,0). Abeltzaintza ekoizpena (11 estab.) eta nekazal eta abelazkuntza konbinazioa (10 estab.) dira sektorean nabarmentzen diren jarduerak. Azken urteetako bilakaerari dagokionez, lehen sektoreko establezimenduak 30 establezimenduren bueltan ibili dira, gora-behera txiki batzuekin.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK.  
ELORRIO.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZA</b>	27	36	33	27	31	30
<b>Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak</b>						
<b>OROTARA</b>	23	32	29	23	27	36
<i>Laborantza ez iraunkorak</i>	4	4	2	3	3	3
<i>Laborantza iraunkorak</i>	0	2	1	1	2	2
<i>Landareen hedapena</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Abeltzaintzako ekoizpena</i>	14	20	18	12	11	11
<i>Nekazal ustiaketa abelazkuntzako ustiaketarekin konbinatuta</i>	5	6	8	7	11	10
<i>Nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko eta uzta jaso osteko prestakuntzarako jarduerak</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Ehiza, animaliak harrapatzea eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak</i>	0	0	0	0	0	0
<b>Basogintza eta baso ustiaketa</b>						
<b>OROTARA</b>	4	4	4	4	4	4
<i>Basogintza eta basoko beste jarduera batzuk</i>	1	0	0	0	0	0
<i>Eguraren ustiaketa</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Basoko produktuen bilketa, egurra salbu</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Basogintzari laguntzeko zerbitzuak</i>	3	4	4	4	4	4


Iturria: EUSTAT.



NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINTZAKO ESTABLEZIMENDUAK.  
ELORRIO.

> LEGE-NORTASUNAREN ARABERA


Lehen sektoreko establezimendu en %80a pertsona fisikoek osatzen dute.



Iturria: EUSTAT.

> ENPLEGU KOPURUAREN ARABERA

Establezimenduen gehiengoak 2 enplegatu edo gutxiago ditu. Bada 15 langile baino gehiago dituen establezimendu bat.



Iturria: EUSTAT.


ZENTSATUTAKO USTIATEGIAK, USTIATZE ETA ERABILERA MOTAREN ARABERA.  
ELORRIO.

	Ustiategi kopurua			Azalera (ha)		
	1989	1999	2009	1989	1999	2009
OROTARA	185	170	117	1.899	2.108	1.097
NAEdunak(*)	183	169	116	682	798	558
Lurdunak	183	170	117	1.899	2.108	1.097
<i>Aziendadunak</i>	151	131	92	1.520	1.587	883
<i>Azienda gabeak</i>	32	39	25	379	521	215
Lurgabeak	2	0	0	0	0	0
Lur guztiak	183	170	117	1.899	2.108	1.097
<i>Lur landuak</i>	164	150	98	103	24	22
<i>Larre iraunkorretarako lurak</i>	178	163	113	579	774	536
<i>Bestelako lurak</i>	178	170	104	1.217	1.310	539

(\*) Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria.

Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsuak.

## ZENTSATUTAKO ANIMALI-AZIENDAREN BILAKAERA (kop.). ELORRIO.



Elorriko animalia-azientan untxi amek hartzen dute garrantzi berezia (3.675 unitate). Ardi-aziendak (912 unitate), behi-aziendak (505 unitate) eta txerri-aziendak (606 unitate) kopura ere esanguratsua da.

1989az geroztik behi-azientaren kopurua ia erdira murriztu dira. Aldiz, ardi-azienda kopurua ia bikoiztu da epealdi berean. Nabarmentzekoa da urte horietan zehar untxi ama zein txerri-azienda kopuruak izan duten hazkunde bortitza.

**1989/99 epealdian  
animalia-azienda  
kopurua %164a hazi  
egin zen.**





ANIMALI-AZIENDA, MOTAREN ARABERA.  
ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA, 2009.

	ELORRIO	Durangaldea	Bizkaia
<b>Abeltzaintza-unitateak</b>			
Behi-aziendak	505	4.829	49.288
Ardi-aziendak	912	10.561	64.990
Ahutz-aziendak	114	1.506	12.238
Txerri-azienda	606	986	2.487
Zaldi-azienda	75	1.283	7.453
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	1	33	776
Ostrukak	0	0	18
Untxi amak	3.675	5.989	14.574
Erlauntzak	0	328	1.339
<b>Abeltzaintza-unitateak/mila biztanleko</b>			
Behi-aziendak	69,1	48,9	42,7
Ardi-aziendak	124,8	107,0	56,4
Ahutz-aziendak	15,6	15,3	10,6
Txerri-azienda	82,9	10,0	2,2
Zaldi-azienda	10,3	13,0	6,5
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	0,1	0,3	0,7
Ostrukak	0,0	0,0	0,0
Untxi amak	502,9	60,7	12,6
Erlauntzak	0,0	3,3	1,2

Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsuak.

Durangaldeko untxi  
amen %61,4a Elorrion  
kokatzen da.

Biztanleriarekiko proportzioan aztertuta, Elorrion ardi-azienden (124,8 unitate/1.000bizt.), txerri-azienden (82,9 unitate/1.000bizt.) eta untxi amen (502,9 unitate/1.000bizt.) biztanleko ratioak Durangaldeko eta Bizkaiako ratioak baino askoz altuagoak dira.








# Lurraren diagnostikoa

Atal honetan egun udalerriko landa lurrari ematen zaion erabileraren dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu. Horrela, jakingo duzu zenbateko lur azalera erabiltzen den, zer ekoizten den, non ekoizten den. Atal hau ezinbestean ondorengoarekin lotuta dator, zeinak azaltzen duen gaur egun baliatzen dena baino arras handiagoa dela autohornikuntza.

## 6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA

### HIRI LURZORUAREN BILAKAERA (%). ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA.



Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.


Oharra: Hiri-lurzorutzat egoitzatarako lur eta lur industrialetan finkaturiko eta finkatu gabeko lurak soilik kontsideratzen dira (Ikus UDALPLAN).

Elorrioko azaleraren %2,7a hiri lurzorua da, eta beste %6,8 bat, lurzoru urbanizagarria da Udalplaneko datuen arabera (2017). Durangaldearekin eta Bizkaiarekin alderatuta, Elorrioren lurzorua gainera hiri azterna murrizta da, eta zentzu horretan, badu bere inguruak ez duen ondasun bat.

Elorrioko azaleraren %2,7a hiri lurzorua da. Durangaldean proportzio hori %4,4koa da, eta Bizkaian, %5koa.

### URBANIZATUTAKO LURRA, FUNTZIOAREN ARABERA. ELORRIO, 2017.

#### BANAKETA (%)



- Egoitzarako
- Industria
- Sistema orokorra

**318 ha**  
urbanizatuta daude

Elorrioren urbanizaturiko azaleraren %20a egoitzarako lurzorua da. Sistema orokorrerako lurzorua hartzen du urbanizatutako azalerarik handiena (%65). Bestaldetik, industria jardueretara bideraturiko lurrek urbanizatutako azaleraren %15a besterik ez da.

Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.





LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA ETA KALIFIKAZIOA.  
ELORRIO eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	ELORRIO	Durangaldea	Bizkaia
<b>Hektarea</b>			
Egoitzarako lurzorua	62,7	559	8.139,8
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	48,8	738	4.993
Sistema orokorretako lurzorua (2)(3)	206,1	1.035	10.574
Lurzoru urbanizaezina (1)	3.379	23.163	197.769
<b>OROTARA AZALERA</b>	<b>3.696,8</b>	<b>25.495</b>	<b>221.484</b>
<b>%</b>			
Egoitzarako lurzorua (1)	2,5	2,2	4,8
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	1,3	2,9	2,3
Sistema orokorretako lurzorua (2)(3)	5,6	4,1	4,8
Lurzoru urbanizaezina	90,6	90,9	88,2
<b>OROTARA AZALERA</b>	<b>100</b>	<b>100,0</b>	<b>100</b>

(1) Landa-guneko nukleo ez urbanizagarriak barne hartu dira.

(2) 2012an zenbatu ziren lehenengo aldiz "ibai bideak" sistema orokorreko lurzoru gisa.


(3) 2014an islatu zen lehenengo aldiz "AHT" sistema orokorreko lurzoru gisa.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

Elorriok badu Bilbo Handiak berreskuratu ezin duen ondasun bat: lurzoru urbanizaezin garrantzitsu bat.


Elorriok 3.697 hektareako azalera dauka. Horietatik, 3.379 hektarea urbanizaezinak dira. Beste era batera esanda, udalerriko azalaren %90,6a urbanizaezina da. Proportzio hori Durangaldearen (%90,9) eta Bizkaiaren (%89,3) parekoa.

KOKAPENA



URBANIZATUTAKO LURRAREN BILAKAERA (ha). ELORRIO, 1997-2017.

FUNTZIOAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.

Azken hogei urteotan Elorrion urbanizatutako lurzorua ekipamenduetara eta sistema libreetara bideratu da, eta maila handi batean ere, industria jardueretara. Urbanizatutako lur azalera berriaren gehiengoa udalerriko nukleoaren periferian kokatu da.

Azken bi hamarkadetan urbanizaturiko azalera ekipamendu eta espazio libreetara bideratu da, nagusiki.





KOKAPENA

■ 1997  
■ 2017




Oharrak: alderaketa honetan ez dira kontutan hartu garraio eta komunikabideen azpiegiturak, erabilitako 1997ko Udalplan kalifikazioan ez baita errepide sarearen inguruko informaziorik agertzen.  
Bestalde, egoitzatarako lur ez urbanizagarriak aintzat hartu dira Udalmapen izendapenean hala agertzen baita.



## 6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA


LURRAREN SAILKAPENA ERABILERAREN ARABERA (%). ELORRIO, 2017.

BANAKETA (%)



Elorriko lurzoruaren  
**%68,4a basoa**  
 da, eta beste  
**%18,1a, larrea.**  
 Balio natural handiko  
 azalera dauka udalerrriak.


LURRAREN ERABILERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). ELORRIO, 2017.








## KOKAPENA



Mila biztanleko laborantzara dedikaturiko 7,7 ha eta frutagintzara dedikaturiko 4,5 ha besterik ez daude Elorrian.

Basoen nagusitasuna alde batera, larreek udalerriko lurzorua eremu zabalena bereganatzen dute (%18,1). Era berean, laborantzara bideraturiko lurrek lurzorua %1,5a bakarrik hartzen dute, eta oraindik gutxiago da frutagintzara bideratutakoa (%0,9).


Laburrean, udalerrian mila biztanleko 7,7 ha dira laborantzara bideraturiko lurrak, eta frutagintzara bideratutakoak, 4,5 ha/1.000 biztanleko, besterik ez.



### 6.3. BASOAREN EGITURA

BASOEN SAILKAPENA MOTAREN ARABERA (%). ELORRIO, 2017.

BANAKETA (%)



- Pinu radiata
- Baso naturala\*
- Eukalipto
- Pinu pinasterra
- Bestelako landaketak


## 2.545 hektarea

baso daude, horietatik, %87,6a landatutakoak dira. Pinu Radiata nagusi da (2.057 ha).

Baso azaleraren %11,7a baso naturala da (295 ha).



\*Jatorrian, Euskal Herriko zuhaitz gehienak landatuak izan dira. Ez dago gizakiak esku hartu ez duen baso naturalik. Hala ere, bereizi egiten da landaketa eta baso artean. Lehenengoa, landaketa marko konkretu baten baitan egoten da, adin eta tamaina bereko espezie bakarrekin. Bigarrenak, itxura naturalagoa du, denboraren joanaz eremu heterogeneoa bihurtzen da: bertako zuhaitz, sasi eta, oro har, masaren bergenerazio naturala ematen da.

BASO AZALERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.). ELORRIO, 2017.






KOKAPENA



## 6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

### 6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA


PARTZELEN SAILKAPENA ERREPIDEAREKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



Landa lureko partzelen %69,4ak gehienez 100 metroko distantziara errepide bat du. Beste %27,0a errepide batetik 100 eta 300 metro arteko distantziara kokatzen da. Irisgarritasun egokia hedatua dago, beraz.


### 6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA

PARTZELEN SAILKAPENA ITURBURUEKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



Partzelen %10,1ak gehienez 100 metroko distantziara iturburu bat dute, eta beste %36,5 batek 100 eta 300 metro arteko distantzian. Iturburu batetik 600 metrotara edo urrunago kokatzen da landa lurren portzentajea altua da (%21,6).






### Errepideak

- Autopistak, autobiak edo galtzada bikoitza
- Errepide nagusiak
- Beste errepide batzuk
- Bideak

Unibertsoa: 3.857 partzela.




### Iturburuak

- Iturburuen kokapena
- 100m-ko bufferra
- 300m-ko bufferra
- 600m-ko bufferra

Unibertsoa: 3.857 partzela.

### 6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA


LANDA LURRAREN SAILKAPENA ORIENTAZIOAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



Elorriko landa lurren %18,3ak hegoalderantz orientatuta dago, %21,5ak hego mendebaldera eta %13,6a hego ekialdera. Gutxi dira iparraldera orientaturiko lurak, hortaz, ereintzako landa lurren orientazioa aproposa da.

### 6.4.4. LURRAREN MALDA

LANDA LURRAREN SAILKAPENA MALDAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.




Landa lurren %9,8ak gehienez %8ko malda du. Beste %10,9ak %8-12 arteko malda dauka.


Landa lurren hiru laurden %20tik gorako malda dute.



Lurraren orientazioa



Unibertsoa: 3.314 ha.



Malda (%)

- ≤5,0
- 10,0
- 15,0
- 20,0
- 25,0
- >30,0

Unibertsoa: 3.314 ha.



7






# Elikagaien ekoizpenerako lurraren diagnostikoa

Atal honetan udalerriko landa lurak duen gaitasun agrologikoa ezagutuko duzu. Xede horrekin landa lur osoa katalogatu eta partzela bakoitzari jarduera desberdinetarako duen egokitasuna aztertu dugu. Horrela, baratzegintzarako, frutagintzarako eta abeltzaintzarako egokienak diren lurak katalogatu ditugu. Era berean, baso eta abeltzaintza uztartzen dituen eredu misto baterako (basolarregintza) lur egokiak identifikatu ditugu. Lurraren orientazioa, malda, ur iturburuen gertutasuna nahiz errepidetara distantzia aintzat hartu dira.

## 7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BARATZEGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.





Elorrioko landa luraren %6,2a baratze gintzarako egokia edo oso egokia bezala sailkatu da. Lurzoruaren beste %24,6a ez da bereziki egokia ez desegokia. Beraz, 207,4 dira baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 28,4 hektarea.

Baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren 207,4 hektarea daude.


Eskumaldeko irudian ageri bezala, lurzoru egokiena herrigunearen inguru osoan kokatzen da, nagusiki, eta horietako asko partzela txikiak dira, gainera.

BARATZEGINTZARAKO LURRAREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).  
ELORRIO, 2017.






BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



## 7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

FRUTAGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.




- 5 - Oso egokia
- 4 - Egokia
- 3 - Ez egokia, ez desegokia
- 2 - Desegokia
- 1 - Oso desegokia

Udalerriko landa lurraren %11,3a egokia edo oso egokia da frutagintzarako. Lurzoruaren beste %43,1a ez da bereziki egokia ez desegokia. Orotara, 378 dira frutagintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 51,8 hektarea.


Frutagintzarako egokiak edo oso egokiak diren 378,5 hektarea daude.

Baratzegintzarako lurrekin gertatu bezala, frutagintzarako lurak ere udalerriko nukleoaren inguruan kokatzen dira. Kasu honetan, ordea, eremu periurbano hori udalerrri osora gehiago zabaltzen da.


FRUTAGINTZARAKO LURRAREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).  
ELORRIO, 2017.








FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



### 7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA

ABELTZAINZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.





Udalerriko landa luraren %55,6a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Lurzoruaren beste %34a ez da bereziki egokia ez desegokia. Orotara, 1.831 dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 248,0 hektarea.

Abeltzaintzarako egokiak edo egokiak diren 1.831,2 hektarea daude.


Irudian ageri bezala, abeltzaintzarako egokia den lurzoru udalerrian barrena hedatzen da, erdigunean, iparraldean eta mendebaldean, nagusiki. Lurzoru horien %54,9a 20 hektareatik gorako partzelek biltzen dituzte.

ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).  
ELORRIO, 2017.






ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2017.



Unibertsoa: 3.314 ha.

## 7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BASOEN EGITURA MOTAREN ARABERA (%).  
ELORRIO, 2016.




**1.041 hektarea**

halako eredu misto batera  
bideratzeko egokiak dira.

Etorkizuneko landaketa berriak basolarregintza eredu sustatzeko eremu egokiak dira. Ildo horretan, baso landaketarako eremuaren %46,3 egokia edo oso egokia da abeltzaintza jardueretarako ere. Hortaz, Elorrioko azalera osoaren %18,1a egokia da basolarregintzako eredu mistoa sustatzeko.







Unibertsoa: 2.250,3 ha.












# Hornikuntzarako gaitasuna eta lurraren potentzialitatea

Esandako guztiak, ordea, zer dakar HAPOan edo antzerako eragiketetan aintzat hartua izan dadin? Atal honetan modu labur eta argian txostenak utzitako ondorio nagusiak laburbiltzen ahalegindu gara. Edonola ere, zu zeu ere libre zara, osatu beharrekoak osatzeko. Zure esku dago hitza.

## 8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA

LUR ERABILERA ETA ERABILI GABEKO LUR EGOKIA (%).  
ELORRIO, 2017.



Baratzegintzarako egokia den luraren %98,7a ez da horretara bideratzen. Frutagintzaren kasuan, kopuru hori %95,5ekoa da, eta abeltzaintzan, lur egokiaren %66,8a ez da horretara bideratzen.

**424,3 m<sup>2</sup>/biztanleko**  
lur behar dira urte osoko elikadura asetzeko.

### ELIKADURARAKO LUR BEHARRA BIZTANLEKO (m<sup>2</sup>). BIZKAIA



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta karga estimatu da.

Ez dira aintzat hartu honako eskariak asetzeko lur beharra: zerealak, eltzekari lehorrak, Bizkaian kontsumitu baina ekoiztu ezinezko frutak, esnekiak, urdaiazpikoa eta txerrikiak, hala nola animaliak elikatzekeo pentsu eta bestelako lur beharra.





## LUR ERABILERA ETA LUR EGOKIAREN APROBETXAMENDUA (Ha). ELORRIO, 2017.

	Baratzegintza	Frutagintza	Abeltzaintza	OROTARA (*)
Egun erabilitako lurak	6	33	670	709
<b>LUR EGOKIA</b>				
Erabilitakoa	3	17	607	627
Erabili gabekoa	205	361	1.224	1.228
<b>OROTARA</b>	<b>207</b>	<b>379</b>	<b>1.831</b>	<b>1.855</b>

(\*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.


Autohornikuntza bermatzeaz gain, lurrek

# beste 14.733 biztanle


elikatzeko gaitasuna dute.

Lur egokiaren aprobetxamendua mugaraino eramanda, Elorrion sortutako barazkietatik 27.447 biztanle elikatu litezke urte osoan. Frutagintzan 22.040 biztanleen beharrak asetu litezke (\*\*), eta abeltzaintzan, 55.347 biztanleen elikagai eskaria .

### AUTOHORNIKUNTZA GAITASUNA. ELORRIO



### HERRITARRAK ELIKATZEKO LURRAREN GAITASUNA (bizt. kop.). ELORRIO, 2017.




(\*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

(\*\*) Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (kontsumituriko fruta bolumen osoaren %48,1a).

## 8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA

BARAZKIGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha).  
ELORRIO.




Oharrak:

Barazkien ziklo estazionalak eskaintzen duen kontsumoa aukera aintzat hartu da.

Eredu ekologiko batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta errotazioa zehazteko 30 bat baserritarren iritzia aintzat hartu da.

Eltzekari lehorrak ez daude barnebilduta.

FRUTAGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha).  
ELORRIO.

Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua estimatu da.

Fruta eskaria zehazteko egun kontsumitzen den fruta bolumena aintzat hartu da. Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (fruta bolumen osoaren %48,1a).

Barazkigintzan  
55,2 ha,  
frutagintzan  
62 ha eta  
abeltzaintzan  
193 ha

behar dira udalerriko  
autohornikuntza  
gauzatzeko.


Udalerrian bizi diren herritarren elikagai kontsumoa asetzeko, Elorriko beharrezkoak dira 310,2 hektarea horretara bideratzea.

Barazkigintzara, orotara, 55,2 hektarea bideratu behar dira herritar egoiliarren barazki eskaria asetzeko. Horien artean, nabarmentzekoa da patata (13,89 ha) eta babarrunak (11,98 ha) hartzen duten espazioa.

Fruten autohornikuntza asetzeko beharrezkoak dira 62 hektarea. Eredu horren zati garrantzitsu bat sagarretara bideratu beharra dago (12,92 ha). Frutagintzara bideratutako lurren erabilera abeltzaintzako zenbait jarduerekin uztartu daiteke, luraren aprobetxamendua handituz.

Abeltzaintzak 193 ha beharko lituzke elorriarren eskaria asetzeko. Autohornikuntzarako urtean, behintzat, 59.300 oilasko buru, 531 txerri buru, 187 abelgorri, 1.087.000 arrautza eta 517.900 litro behi-esne beharrezkoak dira.

## ABELTZAINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). ELORRIO.



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, lurraren errendimendua araudiaren arabera estimatu da.

Ez da animaliak elikatzeko pentsu eta bestelakoen produkzioak behar duen lur beharra aintzat hartu.

Haragi eskaria zehazteko egun kontsumitzen den haragi bolumena aintzat hartu da. Arrautzen produkzioarako lur beharra erredu ekologiko batean kalkulatu da.

Txerriaren haragi eskarian ez da urdaiazpikoa eta bestelako txerriekin eskaria aintzat hartu.

Esne eskarian ez da esnekien eskaria aintzat hartu.

## ABELTZAINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO BEHARRA (ha). ELORRIO.

<b>Arrautzak</b>	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	3.871
Arrautza bolumena (kop./urtean)	1.086.989
Teilatupeko gutxienezko eremua (ha)	0,06
Artzaintzarako gutxienezko eremu irekia (ha)	1,55
Iraitzia ipintzeko lur gehigarria (ha)	15,28
<b>OROTARA LUR BEHARRA (ha)</b>	<b>16,90</b>
<b>Okelarako oilaskoak</b>	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	25.010
Oilasko buruak (kop./urtean)	59.278
Oilasko haragi produkzioa (kg./urtean)	94.845
<b>OROTARA LUR BEHARRA (ha)</b>	<b>43,12</b>
<b>Okelarako txerriak</b>	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	312
Txerri buruak (kop./urtean)	531
Txerri haragi produkzioa (kg./urtean)	63.717
<b>OROTARA LUR BEHARRA (ha)</b>	<b>22,26</b>
<b>Abelgorriak</b>	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	196
Abelgorri buruak (kop./urtean)	187
Abelgorri haragi produkzioa (kg./urtean)	55.752
<b>OROTARA LUR BEHARRA (ha)</b>	<b>78,28</b>
<b>Esne behiak</b>	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	65
Behi-esne produkzioa (litro/urtean)	517.920
<b>OROTARA LUR BEHARRA (ha)</b>	<b>32,37</b>

Urteko produkzioa:

**1.087.000** arrautza



**59.300** buru



**531** buru



**187** buru



**517.900** litro

Oharrak: estimazioa, biztanleko kontsumoak erredu ekologiko (arrautzak) edo jasangarri batean udalerrian asetzeko.


Iturria: GAINDEGIA eta EHNE Bizkaia.





## 8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN

### LAN UNITATE KOPURUA, BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN. ELORRIO.



(\*) Baratzegintza eta frutagintzan zuzeneko salerosketa bidez edo bitarteko kostu txikiekin gordinean 1.500 €/hilean jasotzeko irizpidea aintzat hartu da. Abeltzaintzan, aldiz, eredu ekologiko eta zuzeneko salerosketa batean 2016/04/21an argitaraturiko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 75.* alean zehazturiko koefizienteen arabera kalkulatu da.

Autohornikuntza  
egoera batek  
behintzat  
**179 lanpostu**  
sortuko lituzke,  
baldintza  
egokietan.

Udalerriko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan 179 bat lanpostu, frutagintzan 34 lanpostu eta abeltzaintzan beste 21 lanpostu sortuko lirateke. Kalkulu honek lansari duin bat aintzat hartzen du, eta egungo kontsumoa eta elikagaien prezioaren gainean egina dago. Baliteke, beraz, balizko autohornikuntza egoera batek lanpostu gehiagoren sorrera ahalbidetzea.

Autohornikuntza egoeraz harago, eta azaldutako metodologiaren arabera, udalerriko lur egoki guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 975 lanpostu sortzeko aukera legoke, jarduera aniztarako egokiak diren lurren kasuan baratzegintza eta frutagintza lehenetsiz. Baratzegintzan bakarrik, 300 lanpostutik gora sortzea posible litzateke.

### LAN UNITATE KOPURUA, BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN. ELORRIO.

	Autohornikuntza	Soberakina	OROTARA
Baratzegintza	34	339	374
Frutagintza	10	69	79
Abeltzaintza	21	501	522
OROTARA	65	909	975

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.